


EUSKAL AEko ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI), 2013ko MARTXOA

Euskal AEko eraikuntza kostuak %0,1 jaitsi ziren 2013ko martxoan aurreko hilaren aldean

2012ko martxoaren aldean eraikuntza kostuak %0,3 jaitsi ziren

2013ko martxoan, Euskal AEko Eraikuntza Kostuen Indizea %0,1 jaitsi zen aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa %0,3, EUSTATen datuen arabera.



2013ko martxoan, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,1 jaitsi dira, aurreko hilaren aldean.

Martxoan Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreek bilakaera ezberdina izan zuten lehengaien kostuari dagokionez. Etxegintzaren atalean %0,0 aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilarenean %0,5eko jaitsiera. Bi azpisektore hauen urte arteko bilakaerak: Etxegintzako lehengaien kostuak %0,5 jaitsi dira eta Obra Zibilekoenak %1,4.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenen artean, Material elektronikoa (%2,7), Ez-metalezko industria (%2,3) eta Material elektrikoa (%1,1) nabarmentzen dira, besteren artean. Urteko prezioetan (2013ko martxoa, 2012koaren aldean) murrizketak izan dituzte Metalurgiaren (%-4,3), Petrolioa fintzearen (%-3,7), Ez-metalezko mineralen erauzketaren (%-2,5) eta Energia elektrikoaren eta gasaren (%-1,4) lehengaiak.

1. TAULA. EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK. 2013KO MARTXOA(p)

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m / m-1	m / m-12	m / abendua
GUZTIRA	103,7	-0,1	-0,3	1,0
ERAIKINAK	103,0	0,0	-0,1	0,9
OBRA ZIBILA	106,4	-0,4	-0,7	1,6
LEHENGAI A	103,8	-0,1	-0,7	1,0
ERAIKINAK	102,9	0,0	-0,5	0,8
OBRA ZIBILA	107,5	-0,5	-1,4	1,7
LAN-ESKUA	103,7	0,0	1,1	1,1

Oinarria 2010=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko eraikuntzaren kostuen indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua